

Fagorrek emaitza historikoak izan zituen iaz, 1.578 milioi pezetako mozkinak lortuta

118.740 milioi pezetako fakturazioarekin «errentagarritasunaren urtetzat» jo dute

Iruñe Lasa / Donostia

Fagor taldeak 1999 urtean erdietsitako emaitzen berri eman zuen atzo Donostian, eta iazkoari «errentagarritasunaren urtea» deitu zion. Fernando Gomez-Acedo Fagor Electrodomecoseko zuzendari nagusiak azaldu zuenez, «errekorrer betetako urtea izan da, salmentetan, esportazioetan, garapenean eta produktuen merkaturatzean, eta batez ere, emaitzetan».

FAGOR ELECTRODOMESTICOS taldeak 5.178 milioi pezetako mozkinak izan zituen iaz, 1998an baino %23,2 gehiago. Emaitza hau historikotzat jo zuten atzo Donostian Javier Gantxegi Fagor taldeko Kontseilu Errektoreko presidentek eta Fernando Gomez-Acedo taldeko zuzendari nagusiak.

Mondragon Corporacion Cooperativako (MCC) —munduko lehen talde kooperatiboa— Fagor Electrodomecosek 118.740 milioi pezetako fakturazioa izan zuen iaz, atzerriko salmenten igoera nabarmenarekin, fakturazio osoaren %35a. Hain zuzen, 2003 urterako duen proiektuan, Fagorrek nazioarteko salmentak fakturazioaren %50ra iristea aurrakusten du.

«Errekorrer urtea izan da iazkoa. Baina errekorrer garrantzitsuena errentagarritasunarena izan da» azaldu zuen Fernando Gomez-Acedo. Haren iritzian, nazioar-



JUAN HERRERO / EFE

Fernando Gomez-Acedo Fagor Electrodomecoseko zuzendari nagusia.

Fagor Electrodomecosen 1999ko emaitzak

	1999	Hazkundera	2000 (prebisioak)
Barne salmentak	77.385	%20	
Kanpo salmentak	41.355	%17,5	
Fakturazioa	118.740	%19,3	124.000
Inbertsioak	3.785		5.369
Enplegua	4.354	+184	
Mozkinak	5.178	%23,2	3.000

*Milioi pezetatan

MCCren 1999ko datu nagusiak

Salmentak	Nazioarteko salmentak	Inbertsioak	Langileak
1.031.241	266.492	87.221	47.141

*Milioi pezetatan

teko ekonomiaren ibilbide onak izan du eraginik Fagorren emaitzetan, baina kontutan izan behar da Asia Hegoekialdeko, eta guretzako garrantzitsuagoa den Hegoamerikako merkatuek bizi izan duten krisia. Gomez-Acedoren aburuz, eskariaren portaera positiboak eta Fagorrek berak merkatu kuotetan nagusitzeko izan duen lehia-kortasunak ekarri ditu emaitza on horiek. Fagor markaz gain, Edesa, Aspes eta Westinghouse markekin lan egin du MMCko talde honek.

Poloniako Wrozamet enpresaren %76aren erosketa ere nabarmendu zuen Gomez-Acedok, Mastercook markarekin Polonian sukalde merkatuaren %48,5 eskuratu baitute, bideak zabalduz Alemania, Txekia, Hungaria, Letonia, Lituania eta Estoniako merkatuetara. Asia du orain helburu Fagorrek. Xede horrekin bi merkataritza filial, bat Malaysian (Kuala Lumpur) eta bestea Thailandian (Bangkok), eta ordezkari-tza bat Txinan (Shangai) zabalduko dituzte.

2000rako aurreikuspenetan, hazkunde moderatuagoa izatea espero du Fagorrek 3.000 milioi pezeta inguruko mozkinekin.

Javier Gantxegi Fagorreko Kontseiluko presidentek MCC lehene aldiz bilioi bat pezetako fakturazioa gaildutu duela azaldu zuen eta taldearen erronka nagusia errentagarritasuna eta enplegua bateratzea dela gaineratu zuen, «hori egin ezean kooperatiba bezala gure nortasuna galduko baikenuke».

Nafarroako Gobernuak ez du Volkswageneko arautze espedientea onartu

■ 5.400 langilerentzat eskatu zuten erregulazio espedientea

Erredakzioa / Iruñea

NAFARROAKO Gobernuak Lan Zuzendaritzak Volkswagenek eskaturiko 5.400 langilerentzako lan arautze espedientea ezartzea gaitzetsi zuen atzo. Logistica ekoizpen enpresak egindako greba zela eta fabrikari izandako geldialdiagatik eskatu zuen enpresak espedientea.

Erabakiak helegitea jartzeko aukera eman dio Volkswageni, baina enpresako zuzendaritzak ez duela errekurrituko esan zuen atzo. Hala ere, izandako kalteengatik Logistari kalte-ordainak exijituko dizkiola esan zuen.

Volkswageneko enpresa komiteko lehendakari Esteban Garcia pozik azaldu zen Nafarroako Gobernuak erabakiarekin. Honek Volkswageneko zuzendaritzaren erreflexioa bultzatu beharko duela esan zuen.

LAB eta ELAk ez dute onartu UGT-CCOOk metalean lorturiko aurreakordioa

Erredakzioa / Iruñea

METALEKO Nafarroako UGT eta CCOO sindikatuen hitzarmen kolektiborako aurreakordioa lortu zuten atzo patronalarekin.

Iragan astean ELAekin batera mobilizazioak hasi zituzten, eta horren ondorioz negoziatzaileekin zioten berriz ere atzo. Akordioak lau urterako hitzarmena hitzartu du; bi urtetan %1 eta beste bitan %0,75eko soldata igoera aurrakusten du akordioak.

Orain arte elkarrekin izan diren arren, ELAk ez zuen aurreakordioa onartu atzo. Ramon Goldarazena ELAko metaleko arduradunaren arabera, «gauza aunitz bidean geratu dira».

LABeko ordezkariak ere aurreakordioa «erabat ezkorra» dela esan eta 4 urtetako iraupena astakeritzat jo dute.

Iberdrolak 95.000 milioiko kontratua lortu du Mexikon bi enpresa argindarrez hornitzeko

■ Monterrey hirian eraikiko duen argindar planta 2002. urtean hasiko da funtzionatzen

Erredakzioa / Bilbo

IBERDROLA argindar konpainiak argindar planta bat eraikitzeko kontratua lortu du Mexikon. Kontratuaren balioa 95.000 milioi pezetakoa da (3.800 milioi libera), eta instalazio hauen helburua Nuevo Leon estatuko bi enpresa argindarrez hornitzea da: Alfa eta Pegi enpresak hornitzeko hain zuzen.

Argindar planta hau Mon-

terrey hirian eraikiko du Iberdrolak, eta 2002. urtean hasiko da funtzionatzen. Nueva Leon garapen industrialik handiena duen Mexikoko estatua da, eta hiriburu Monterrey da. Iberdrolaren zentral elektrikoak Amerikako lurralde hartan inoiz eraikitako handiena izango da.

Zentral honek 388 megawatteko argindarrez eta 307 TPH (tona orduko) lurrunez

hornituko ditu Alfa eta Pegi prezio egokian. Hornikuntza Iberdrolaren esku egongo da 25 urtez. Alfa enpresako zuzendari Alfonso Gonzalezek esan duenez, «oso pozik gaude akordio honekin, gure enpresek energiaz hornitzeko aukerak azaltzen direla eta gure jardueraren hazkunde posible izango delako».

Alfa taldeak bost atal biltzen ditu: Alpek (zuntz sintetikoak eta petrokimika), Hyl-

samex (altzairua), Sigma (elikadura), Nemak (autoentzako osagarriak) eta Onexa (telekomunikazioak). Konpainia honek 4.056 milioi dolarren etekinak lortu zituen iaz, eta mundu zabaleko 23 konpainia handirekin aliantza estrategikoak dauka.

Kontratu honekin, Iberdrolak 1.000 megawatteko argindar ekoizpena dauka Mexikon, beste ezein enpresak baino gehiago.